

1961: R. I. P.

1961 urte zarra il iaku. Gizajoa, ona zan ba!

Asteak, egunak eta orduak apur-apurka beragan-
dik jaten egon dira, bere bizia jaten, eta askenean
il egin da; ez, beikorik ez da mundu onetan.

Izan dauz, egia esan, bere gora-bera eta zorakeri-
txoak be: Cuban, Rusiako bonbakaz eta Congon
egin dabena ez da ain txalogarria, baña danok dau-
kaguz gure akatzak.

Orra or erretrato orretan bere irudia. Bere azke-
neko orduak: zaartuta, okertuta, zimelduta, bibote
zuria eta makillea eskuan, bere elburura bidean. Kan-
totxu orixe jiretan dabenian geiagorik ez dogu ikusi-
ko. Agur ba urte zaarra eta eskerrik asko. Agur be-
tirako.



VIII URTEA - N.º 86

URTARRILLA (1) 1962

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

1962: Jaio barria

Urte zaarra il eta barria jaio. Orixen pasetan da
gizonen artean be.

Urte barria aurrez-aurre.

Somatu al bagendu bere barrua! Zer ete dakar
bere barruan gordeta? Bake ederraren kimoa? Edo
gerrate bildugarriaren sekreto?

Dana dala, aor daukagu urte barria, gazte, sendo
eta osasuntsu. Gora begira, bere beso zantsua agertu
eta zeozer egiteko asmotan.


Jaungoiko Jaunak zuzendu dagizala bere pausoak
eta argitu dagiala bere adimena, mundu guztiari osa-
suna ta bakia emon dagion.

Egutegi barri bat lez dogu urte barria. Lodi eta
sendo gaur. Baña egunak joan, egunak etorri, zimel-
tzen joango da. Orri bakotzak gauza barriak eraku-
tsiko deuskuz: onak eta txarrak. Bear bada orri da-
nak ezin kendu al izango doguz.

Jaunaren borondatea izan dedilla gauza guztien
ganetik.

Antonio Zubizarreta





1. TOTAL... ZABALEKO DANTZA BAT.

CUBA'n F. Castro'k lege barri bat emon dau. Lege orren bidez, oraindik aurrera, Cuba'ko seme-alabatxo guztiak, iru urtetik gorakoak, Estaduaren eskuetan itxi bear izango dira, euren gurasoen jagotetik kendurik, Estaduak azi ta gizon egin daiazan, jagokien irakatsiak emonaz. Gañera, lege orren beste zati batek diñonez, aurrerantzean ezin izango da siñismen edo erlegiñorik iñori erakutsi. Lege galanta! Nók emon deutso Fidel'eri ori aginduteko esku-bidea?

RUSIA'n, Krustxev Jaunak suin bat dau. Iñok ez eban ezagututen gizon ori bere aitagiñarreba Rusiako nagusi egin-arte; gaur, oster, aundienetakoa da. Lenago, "Izvestia" Partiduko periodikoaren zuzendaria egin eban bere aitagiñarrebak; gero, Komunista Partiduaren atariko bat, berezikoen; eta azkenez, Iparamerikara bialdu dau, bere izenean Kennedy'gaz berba egiteko.

Zer deritxozue zuek? Aitagiñarreba ona, ezta? Baiña... ez jatzue iruditen "jauntxo" bi oneek asmo bardiñak daukezala barru-barruan? Familia zainduten diardueta diñoe eurak... Benetan: Fidel'ek aziko ditu Cuba'ko seme-alabatxo guztiak, gero... etxe-koak, bere aldekoak, indar-lekuetan jazarri eragiteko. Ori dok ba, zabaletan dantzant egitea!...

2. FAMEA LORTUTEKO BIDEAK.

Asteroko baten irakurri neban: "Españian amar bide dagoz famea lortuteko: Teatro-artista izatea, zezenlaria edo torerua izatea, futbolista izatea, zineko artista izatea, abeslaria izatea, "cantaor" deritxoena iza-

tea, "flamenca" deritxoena izatea, ukubil-kalaria izatea, teatro-aktorea izatea, eta beste bat ("serial" baten idazlea edo...). Eztago txarto. Aukeratu zuek naiago dozuena. Olan, laster lortuko dozue famea... ta dirua! Españi osoko famea edo izen ona, ta zeuk gura dozuen aiña diru. Ezarrie ausartuten? Egia esan, ba-dira Españian beste arazo edo eginbear asko ta asko, garrantzi andiagokoak, gizarteak askozaz geiago bear dauzkan eta guztiori obeago jatorkuzanak, baiña... ez areen beste fama ta diru emoten dabenak. Ortxe dago ziria! Ez esan eurak daukela errua, futbolistak edo zineko "izarrak"... Eurak ain errez lortuten badábe dirua ta famea, geurea da errua, geurea, diru ta fama ori geuk emoten deutseguezelako. Geurea, edo erriarena, edo erria edukatzeko eginbearra daukenena...

3. LENAGO OGIA TA GERO JAUNGOIKOA.

Konforme: lenago ogia, lenago osasuna, lenago dirua ta... gero Jaungoikoa. Bai, biur egiteko, jan egin bear da, eta ondo dakigu Jangoikoari jarraituteak biar andia emoten deuskula. Konforme, bai, baiña... Iparamerikako berrogeta amaika milloi familiak refrijeradorea dauke, beste berrogeta sei milloiak telebisiñoa, eta berrogeta bat milloiak euren autoa. Fededun familiak, barriz, erlegiñoaren baten siñistuten dabenak, OGETA AMALAU milloi bakarrik dira ta IRUROGETAZ milloi siñismen garaurik be ez daukenak. Oraintxe ulertuten ditut Jesus'ek esaniko berbak: "billatu lenago zeruko erreñoa ta bere justizia, eta berez emongo jatzue gaiñerakoa..." Orregaitik, ogiak emoten ez badeusku Jaungoikoa, aitortu daitgun obeto dala lenago Jaungoikoa ta gero ogia!

4. KATOLIKO ZAARRAK, ZAARREGIAK!

Madrid'en jazo da. Españitar batzuk iparamerikatarren eleiza baten sartuten ziran mezea entzuten, katolikoak bai-ziran. Atze-

rritarrak, Kanon eldutean, belaunikatu ei ziran; "Aitagurean" zutundu, eta gero bairriro belaunikatu. Au da, mezea "egiten" ari ziran. Espanitarrak, oster, an egozan, jesarrita denpora guztian, konsagraziñoan izan ezik (eta orduan be belaun baten gainean...). Abadeak esan ei eutsen azkenean

eta itzal onenean, zelan portatu bear ziran. Baiña... eurak euretara gelditu ziranean, esaten ei eutsoen alkarrerri: "Nora datoz oneek amerikanoak! Uste dabe ezer erakusteko dagozala guri ala?!... Eta bai eukela!

PEDRO MARI'k.

Temoso bien ezkontzea

Ibilli nintzala ni baten ezteguan ogel urte igaro dira zapatuan; noiz zirean temoso pirri bi ezkondu, ezin ziranak gero ezelan konpondu; nai ebelako beti biak izan nagusi, etxe aretan bakerik etzan inoiz bizi; ebiltzan beti-beti kezkan, ez eta bai, bakotxak ebalako bereaz urten nai; augaitik deitzen eutsen Praiskari, berekor, Praiskori erri danak, barriz, buru-dekor; nori arratserako berotzen odolak bajakozan ziurtu ziran teniolak

Nok esan Praisko ala Praiska zan obia? Diñot, biak eukela beti errazoa; diñot, nik nekusala Praisko gizarten, beti gogor zaillduten berak esanean. Praiska ez dazaut ondo, baiña bere ama, diñot, suge izpia duiñ zorrotza dala; bakit, barriz, billdurrez bizi zala Praisko, burua ete eutsan Praiskari ausiko; ta ain arri labanean jarraitzea baño, desezkontzea zala pentsaurik zala obego, Praiskari zer asmetan eban esan eutsan, eta bananduteko au bere poztu zan.

Ze laster Praisko joan Abadeagana egin zan jakitera zer zirautsan bada; zeñek erantzun eutsan gatxa izan arren ebazala askatuko, biak gura beben; atarako eleizan, biaramonean, agertzeko zazpirak joten ebenean.

II

Eleizeratu ziran zazpiren drangadan, ta aurrez abadea egoan altaran; jantzita bear legez prest bere lekuan, burdiñazko isopo bategaz eskuan; noren aurrean ziran ezkondamutuak, belaunikotu makur jarririk buruak; ta Aitaran eginda danak bereala, gauzeak urten eian ondo eta erara, abadea asi zan ixilik esanaz, lantzean bein berba bat, baiña ez euskeraz; eta noizik-noizera isopo gogorraz, joaken koskorreko ederrak emonaz; bostgarren burokoan Praiskak eban negar, baiña, Praiskok amorru eta arrabioz dedar:

—On Luis, guk onetara banandu ezeze, laster galduko dogu bizitzea bere; isopokadak artzen, noz artean, jauna, eukiko gaitu emen, naikoa ez dala? Irri barrez diñotsa: —Eztogu naikoa, benturaz lan au dogu aste guztikoa; ez al dakizu, Praisko, desezkondutea, dala bietatik bat alargundutea?

Zuen buruak illun, dotriña bagarik, dagoz eta bear ditut jarri argiturik; banandu ezetara ezin zeikiet nik, bat edo bestea itxi arte illik.

—Ola! ezteusku gitxi, jauna, eskatuten, ori jakin bagendu ona ezkontezen; errazoi eukan bai, erremedia, zala gatxa, gañera barriz kostosua; Jagi, Praiska, ta goazen, ill baño lenago ill ezkeru guztia amaitua dago; burruka eta abar obe dogu bizi, ez benturaz biziak biok emen itxi...

Kar kar kar abadea, itxirik barreka, eurak bostna burukoz miñez ayeneka, seigarren bana laster arrapau baño len, eleizatik tximistaz biak urten eben; eta kale guztia lotsari artean igarota, sartzean euren suetean, asi ziran laster sendatzen euren buruak, abadeak anallatu eta argituak.

Bai, mallatuagaitik eutsezan argitu, bestela gaur dayegan eurari begiratu; len beti gerran bizi baziran etxean, bizi diralako gaur oso bakean; ain bestean ein dabez jenioak ondu, alan ez dabe gura orain desezkondu.

(Arrese Beitia)

Jose damutua

Josek orain bost urte ezkontzeko zala, konfesiñoa egin eban jeneral; gaiztoa izan bazan bere lau urtean, bildurra sartu jakon nozbait biotzean, here animeaz zer izango ete zan, penitentzia бага baldin illten bazan.

Arildu ebanean konfesiñoa dana, matatzar bat baño luzeago zana, bere pekatu danak eitean autortu, egin jakon barrua osoro nasaitu; baiña penitentzia ikusten zaia, pekatuen ondoan labor ta txikarra, itauntzen asi jakon, estu eta larri, utseñ ebalakoan, konfesiari:

—Jauna, ez dauz ikusi nire pekatuak zireala milla ta danak pisutsuak? Ta karga aín arriñaz bialdu gura nau? Ez, jauna, zorren lainaz bear nau kastigau.

—Seme, gogoan ditut zure pekatuak, zireala milla eta danak pisutsuak; baiña ikusten dot zelan ezkontzera zatozan ta andradun alan egitera; etzaiz bada estutu Jose damutua; laster dozu lepoan kargea naikua; eroaten badozu bost urtean bera, laugaz zorrak pagauta artzekodun zera.

Ein ebazan Josek bai zorrak lau urtean, baña zelan kargea daroian bostean, kontuak ateraten joan dan astean, erautsan bere kautan kantaurik etxean:

“Lau urtean zor danak egitean kitu, hostgarren au artzeko jat gelditu; urte askotan alan baldin banaz bizi, zeinbat nik zerurako daiket irebazi?

Alan dala dirudi, zergaitik andrea, aurkitu arren nagi ta ondo gurea, bera jaso azinda naiz Jose makurtu, bost urtean keja bat etxako ezautu

(Arrese Beitia)

Gizon kanpo ederra etxean gerra

Zergaitik bada, Txomin diñoe nigaiti, nazala gizon on bat kafietan beti?

—Zergaitik ori daben orrelan esango? ejemplo bat jarriko laster deusut, Paulo.

(Arrese Beitia)

I R U N E S K A

Zergaitik geldituten dira gaurko neskak ezkondu barik, bakartadean, bizitz latz au eroan eziñik? Zergaitik?

Ez uste sarritan gertatzen dan legez eurena ez dala errua. Baliteke ez izatea, baiño ez da ikusiena. Geinetan, ta parkatu, neskattillok, zeuena da errua, bai zeuena. Ez zaiatu aita-amaren bizkarrera erruak jaurtiten, alperrik zabilte-ta. Gertatu leike gurasoak errudunak izatea, baiño ez uste dogun beste. Orduan, zergaitik ezaree ezkonduen? Iru gauzatxoagaitik bakar-bakarrak. Ez deustazue sinestuko, baiño... egia da. Ara amen iru gauzatxuok; goiztarrak zareelako; eder eta liraiñegiak zareelako; azkenez, arroak zareelako.

Neskattil goiztarrak: An doa gure neskatilla, ikusi eizu, amabost urte orain dala ille bi bete ebazana. Arro-arro, burua nora mobidu ez dakiela, erromerira. Gatza ez iako falta neskattillari ta beingoan azten iakoz mutillak segian. A ze poza berana!

Andra aberats asko bizi oi da ala, kanpoan zelan beti direan ikusten, guztizko berba eder eta leunak esaten; gaztetatik zergaitik au deben ikasten, alako andra ontzat ditugu eukiten; baña itauntzen bada nezkatxa artean, eta etxeokandre ona dan etxean, ez dabe danak, Paulo baietz erantzungo, dongak dirala batzui detsezu entzungo; etxean dalako ikusiten barrua, ikusten bakotxai bere jenua, ondo ezaututeko zein dan zelakua, testigutzat nai leuke artu laratzua; azala euki arren ederra sagarrak, iñoz euki oi dabez biotzean arrak Badakit, Paulo, zu zer zarean kalean, konbidau nozulako sarritan kafean, jokuan dozunean samur irebazten, dirua bere bardiñ deustazu emoten; baña zu zelakoa zarean etxean, andreak esan eustan lengo jai batean; dirurik iñoz ez da astean zurra bi, dakialako emoten Paulok andreari

Baiña ezkondueteke garaian aurkituten diran mutillenzat, umetxo bat baiño ez da. Polita dok, diñoe, baiña gazteegia. Orrekin ez iauk zeregiñik. Neskattilla azi da. Eldu iakoz ogei, ogetabi urteak. Ezkondueteke ordua.

Eta orain dator baltzena, iñondik be ezin aurkitu mutil bat. Neskattilla beran edadeko mutillenzat zarregia da. Orain dala bost sei urte ikusi eben erromerian dantzango satsu, zeozertxu zala esan guraz, neska egin zala erakutsi naiez. Ta gaur ezkondu bear dauenean, mutillari zarregi eritxi yake. “Zer ez iok jakingo oraingo orrek, bost urte dozak onela dabillela-ta. Gaiñera Permin eta Kepa-kin ibilia dok”. Ezagunegia da gure neskatoa mutillenzat eta oneek ez dabe berakin ezer iakin gura. Oraintxe agertuten iakoz neskattillari arerio gogorrenak, aintziñako neska-lagunak, baiña urte pare bi beranduago izartutako neskattillak. Onek dira mutillak zoraturik daroezenak. Gazteak, ikusi bakoak diralako. Gure nes-

mutilla lar ariñegi aren edo bestearen nobia gura izan daualako ta bere edadea gogor-egin daualako, gaur itxaropena ta maitasuna galduaz bakartade bildugarrian bizi da. Beran erruz.

Neska ederra: Neska eder eta liraiña gan. Pozik ebillen mutil arekin, baiña gixien uste ebanean, mutillak itxi egin eutsan. Zorigaitz onen iturburua, askotan edertasuna izaten da. Edertasuna larregi goretzia. Begiratu neskatil areri. Benetan ederra dala. Mutillak zoraturik daukoz. Agoa zabalik, eta begiak ia urtenean begiraturuten deutsoe. Erregiña dirudi. Konturatu da ederra baiño ederragoa dala eta bere buru ariña amesetz bete da. "Ni, industrial baten semeagaz edo futbolista bategaz ezkonduko naz, baiña onekin ezta pentsa be...". "Ai gixajoak, itxaron bearko lozue, niri koixu gura badeustazue". "Nire ezkontza... ai nire ezkontza..." Amesetan... amesetan..., ogetamar urteak eldu iakoz. Lagunak ezkondu ziran, pozik bizi dira euren semetxoakin. Bera, bakarrik gelditu da. Ta ez da ederregia izandako señoirita "X" baiño.

Neska arroa: Betikoa. Ni enaz ezkonduko

neuren beste diru ez daukon mutil bategaz. "Ta neskatiltxua, nor da mutil pobrea?" —Nire kontura bizi gura dabena! —"Ai gixajoa, gero damutuko zara baiña berandu. Ezkondutean errukiz begiraturuten eban laguna, gaur oso zoriontsu bizi da. Mutilla ezan aberatsa, baiña bai biargin zintzoa. Zenbat bidar busti dira bere begiak malko garratzakin. Arrokeriak galaso eutson mutillari bere biotza emotea ta bitartean beste neska batek eroan deutso. Neskeari, dirutsua izan arren, berebiziko gauza bat falta iako: sentimentua. Uste eban bere atzetik ebillen mutilla, diruagaitik ebillela. Oker egoan. Diruagaitik ebillena, bera zan. Bere maitasuna ez da maitasun utsa. Berekoiz nastatuko maitasuna baiño. Ez dau siñestuten maitasunean, ezta maitasunak egin daikezan mirarietan. Onegaitik geldituko da betirako bakartadean. Berak gura izan daualako. Beran erruz...

Emazteen zoriona ezin da aurkitu edertasunean eta diruan. Senarrak edo senargaiak daukozan doaietan baiño: zaletasunean, errespetuan, sentimentuan, MAITASUNEAN.

Leopoldo'k



PAULO DEUNA IDAZLE

Aurten San Paulo Erromara eldu zaneko emeretzigarren eunurtebetea ospatuten dogu pozez Eleizeagaz batera (61:1961). Eta eunurtebetete onen azken egunak joan baiño ariñago: zeozertxo bat esan gura deusuet danori Paulo deunari buruz. Ia gogorapen onen bitartez guztiok probetxu espiritual apur bat ataraten dogun. Gaurko munduak daroan materialismo-sasoia eten eta desegin nai badogu Paulo donearen Epistolakaz ondo beteta ibilli bear dogu danok. Bakotxa berak daukon arazoan sendo ekin: baiña, San Paulon antzera, beti Jaungoikoagaz lotuta, bat eginda.

Gitxi-gora-bera ezagututen dozuez, bai, Paulo sutsuak bere bizitza ugaritsuan erabilli ebazan artu emonak eta beren nekez eroan bear izan zituan gora-berak. Kristogaz zietz zeetuta egoan eta benetan zan Ebanjelioaren zabaltzaille. Paulorenak bai egitan izango zireala sermoiak beroak!

Baiña Pauloren berbearen bizitasuna alde batera itxita, bere idaztien edo karten mamin eta argiaren atzetik joango gara.

Beren eskuetatik urten eben karta danak ikusgarriak dira. Ortxe topauko doguz orduko mundua barriztatuteko erabilli ebazan Jesukristoren egi xamur batzuk. Gure artean be ez leukee egingo ba kalte aundirik egi oneek!...

Danetara amalau karta ezagututen doguz San Paulorenak, danak kristiñau komunitadeari eskribidu eutsezanak. Jakintsuak diñoenez, geiago be idatzit zitun eta galdu ziralako-edo gaur ez doguz ezagututen oraindiño.

San Paulo bere idaztietan ez da agertuten literato ta jakintsu bat lantxerik; literatura egiteari jaramonik egin barik be baeukazan berak zen egite ugari-ta... Kristiñau-irakaspen osoa emoteko asmoagaz idatzitakoak ez dira epistola oneek. Karta oneek primeran ta ezin obeto eskribituta dagoz ordun, kartak egikeran, berak euki ebazan intenziño bakarrari ta garbiari begituta: batzuk emen siñiste gaixto ta oke-

rak akabatuteko eskribidu zitun, beste molde txarrak an austeko; edo andikoak komunitade kristiñau bat bizkortzeko, emendikoak, barriz, esan bat aginduteko abar... Orduko ambientean jarrita epistolak bear dira gauza oneek. Ta ganera danak egin ebazan ezkutuan legez: biar guztiak itxiten eutsoen bitartetxuetan, eta edonon aurkituten zituan orduetan

Ta alan ta guztiz be, zenbat aberastasia eta urre-garaun ez daukez gordeta barriztan. Gure erlijioaren mamin guztia! Ifioiz ez dira agortuten. Zoritxarrez makiña bat be derrez entzuten doguzala baiña gitxiak irakurten doguzala autortu bearrean gaur eta orrexek galduten gaitu gure alperisarian. Gutzat ez dira irakurgai errezenak eta pozgarrienak, ez. Baiña alegin eta inoiz apur bategaz irakurten badozuez barriz ikusiko zenduke, ta arin ganera, Karta orreetan fabrikatuta dagon egizko mundua



S Pauloren dotrina aitzera ez ben erreza. Kosketa datorrenian jakitun bateri haundutea onena.

Arrituta geldituko ziñakee: askoz be ar-
giago ikusiko dozue San Pauloren espiri-
tuaren sakontasuna.

Karta oneek ez dira danak bardin-bardi-
nak; baiña ia danak molde auxe segiduten
dabe:

1.º Len agurra ta eskerrak emotea: pa-
ganoen kartak be onantxerik asten ziran.


2.º Konseju ta irakaspenak: geienetan
karidadeari ta fedeari buruz iminten eban
teozer.

3.º Eta azkenez, bedeinkaziñoa, otoitzak
ta amaitukerako agurra.

Epistola bat leiduten dozuenean bein-
goan igarriko dituzu lau atal oneek: Biga-
rren zatia izaten da nagusiena beti; ira-
kaspén guztiak aintxe agertuten dira ta.
Ta orregaitik, Epistola bat leiduten dogu-
nean, bigarren atal bertan sakondu bear
dogu.

Pauloren Kartetan samurrenak Tesaloni-
katarreri idatzi eutsezan biak dira ta Fili-
potarreri egindakoa be bai. Irakurri daigu-
zan ainbat arinen eta alegindu gaitezán
Epistola oneen barruan egi garbia aurki-
tuten.

Anai Yon Zabalgo



Etorria emoten daben ametsak

Rikardo Wagner-ek, bere "Oro del Rhim-
en" sarrerantzat ezin idoro izan eban bere
gustoko musika polit eta egokirik.
Gau baten, lo egoala, burrundada aundi-
ko ibai baten erdian ioiala egin eban amets.
Urtaren otiak musikako ereski edo notak
irudituten iakozan. Olatupean ia itota egoa-
la ikusirik, lipar, derrot ixartu zan; baiña
olatuén "oiuak" ez ebazan bertan-bera itxi,
ez orize! Ixartu zaneko, pianora joan zan
ta olatuén "oiuakaz" bere "Oro del Rhim-
en" sarrera eratu eban.

Amesetan egoala asmatu eban Elias Ho-
wek josteko makiña. 1845-ean gertatu zan:
"pieses Rojas" deritzaion gizon batzuek atze-
tik segiduten eutsela-ta estu ta larri ebillen
Elias amets baten. Abiadan ioiala, miñ aun-

di bat emon eutson; estrepozen bat zapal-
du eban kontitu; estrepozu au burdiña me-
txu bat izan ei zan. Ataratéko alegiñak egin
arren, ez eban atara. Azkenean, burdiñazko
estrepozuari zulo triki bat egitea bururatu
iakon; ta bai laster atara be!

Amesetan ikusi eban gertakizun onexek
emon eutson josteko makiña egiteko argia.

* * *

Frederik Grant Banting, zoratuta begez
ebillen "diabetis-en" kontrako sendakitzarik
ezin billatu ebala ta. Gau baten, lotara joan
ondoren, amets bat euki eban. Amets one-
tan formula barri bat jarri iakon begien
aurrean. Biaramonean, oitura eban lez bere
eskola edo laboratoriora joan zan. Ametse-
tan agertu iakon formula barria begien au-
rrean ipiñi ta esperimentu bat egin eban.
Miraria! Formula ortatik "insulina" deri-
tzaion sendakitzariak arten eban.

* * *


Austria-ko Otto Löwiik, farmakotogo,
amets arrigarri bat euki eban. Erdito egoa-
la, zeozertzu gogoratu eban; baiña biara-
monean, biarrean asi zanerako, itana joan
iakon. Urrengo gabean be amets burdiña
euki eban. Ixartu zanean, derrot idatzi eban
bere ametsu. Amets artatik jaio zan bere
izena daroan sendakitzaria.

* * *

Dinamarka-ko Niels Bohr, fisikako "No-
bel" sariduna bera, atomikaren teoriarako
bidea amesetan aurkitu eban.

"Amesetan nengoala —dirausku berak—
argizko eraketa edo sistema bat ikusi na-
ben. Argizko eraketa au, uñeda aundi ba-
ten ebillen bira-biraka. Auxe izan zan ato-
mika-teoriaren sor-leku".

Idoyaga-tar Xabier.



MUNDAKA

Zelan "Andre Mari Mendikoa" izan leiteken "Dominibus"?

Mundaka-ko basoan alboan aurkituten da baserri gizatsu bat; Bermio-kua izatez baña eleizaz Mundaka-koa.

Ienez, euskeraz "Demiku" ta erderaz "Dominibus" esaten deutse.

"Dominibus" ori latinezko izena dirudi. Baña edesti ta idatzi zaarrak diñoskuen legez, erromatarak etziran ibilli toki onetatik edo ibilli baziran be, orretariko baserri txu danari "latinezko" izenak jarritzen, etziran ibilliko.

Ba-dagoz bai uri andiak "Leon", "Zaragoza", "Merida" ta beste batzuk erromatar izenak darabilleenak, baña uri orrek eura eresitu ebezen eta bertan bizi ziran.

Dana dala, or dago izen ori eta "Dominibus" izenpean ezagututen dogu, erderaz inargututen dogunean beintzat.

"DOMINIBUS".

Nundik eta zelan izen ori?

Zeintzuk izango ete ziran izen orren asierak?

Gure eretzian onexek:

Baserri orretan danok dakigu "ermitza" edo elez txiki bat antxiñatik egoala, "Justo ta Pastor" Deunen izenpean jarrita; alan ba gure gaztaroan askok baserri orreri "Justi-Pastore" esaten eutsen, eta Deun onen irudiak be ezagutu genduzan.

Orduan ezegoan "ermitzarik" ia berreun urte, Prantzesak puskatu (apurtu) ebelako.

Gaur dagoana barria da, orain ogetamazortzi urte iragita eta bertan dagoan Ama Nezkutza-ren irudia, lenengo txadona-kua dala diñoe.

Orrela, Andra María ori ba-zan zelan izentatuko eben?

Uste dogu "Mendiko Andra Mari" edo Andra Mari Mendikoa esango eutsoenla Mundakan eta inguruetako beste Andra Mari ziranakaz ("Lamiarangoa", "Elexakoa", Santa Katalina ermitzako Ezkerdun ospetsua ta abar) berezkatuteko.

"Mendikoa" erderatu zanian "Menigo" agertu zan.

Aldaketa orrek biurritasunik ez dauko.

¡Egokia da! Izan leiteke!

AASTE - BORRASTE

Orren antzeko aldaketak euskerean sarri ikusten doguz.

Or daukazuez urre-urre Artika-Artiga, Almika-Alboniga, Domeka-Dominga ta abar. "Ka"abots sendoa edo gogorra, "ga"zara ta leunian, biurtuten da.

"Menigo" itzen aurrean, erderazko "de" jarri ta alkartu ezker... ¡or daukazue... Demenigo!

Mundaka-ko Eleizan dagozan Bataio-ko idatzietan, ainbat eta ainbat "Demenigo" abizen aurkituten dira 1600-garren urte inguruetan.

Abizen polit ta ederrak ganera!

¡¡Begira!! Batzuk "Demenigo ta Goltzi" beste batzuk "Demenigo Arquetas", Demenigo Mendekano ta abar.

¡¡Abizenak euren baserri-basetxe-ko izenetatik eratorrita! Ontzat artu dagigu ba "Demenigo"... baña... "Demenigotik" "Demenigus" atera ebana? Nor izango ete zan?

¡¡Geiago oraindiño!! Nok "Demenigotik" "Demenibus" "Diminibus" eta azkenengoa "Dominibus"?

Naste eder ori asmatu ebanak... "Andre Mari", "Justi-Pastore" ermitza, elexa alde batetik eta bestetik ainbat "pralle", "moxja", "abade" baserri orretik urten ebala ikusirik, ezaban artuko atxaki ederra latinezko "Dominibus" izen polita, baserri orreri lepuratuteko?

¡¡Ez!! Ba-dakigu gizon bakar baten lan, ezin leikela izan.

Urtiak igaro bear aldaketa ori jasoteko. Orain berrogetamar urte "Demenigus" entzuten zan Mundakan.

Gero, ume ta gaztiak, txartu artu bebarrira izen ori... ta or daukazuez beste dakanak.

¡¡Ziur-ziur nago, naste eder ori Mundakatik urten ebala!!

* * *

Euskerazko "Demiku" izena "Demenigotik" artez-arte dator.

Len esan dogun legez, euskerean aldaketa orrek zarri ikusten dira.

"Ka"abots gogorrak, "ga"leuntxoago... ta ostera be bardin.

Ortik "Demenigotik" "Demeniku" ta "Demiku" urten dabe ta baserri ta baserri arean euskerazko izena, auxe da.